



**Arartekoaren ebazpena, 2008ko urtarrilaren 23koa; horren bidez, Gordexolako Udalari gomendatu zaio ondoriorik gabe utz dezala herri onurako mendi bateko bazkalekuak abeltzaintzarako erabiltzeko eman duen baimena.**

### Aurrekariak

1. (...) jaunak Arartekora jo zuen, Nocerilloko bazkaleku publikoa erabili ahal izateko zailtasunen aurrean Gordexolako Udalak erantzunik eman ez ziolako.

Pertsona horrek Gordexolan dagoen nekazaritzako ustiategi baten titularra dela adierazi zuen. Bere ustiategiaren ondoan, Nocerilloko bazkalekua dago. Bazkalekua Abeltzainen Elkarteari esleitu zitzaion aspaldi eta, antza, denboramuga hurbilik gabe.

Hainbatetan saiatu da elkarte horretako kide izaten, eskakizun guztiak betetzen baititu. Alabaina, elkarteko estatutuei jarraiki, lau kideetatik gutxienez batek kandidaturaren alde egin behar du eta, oraingoz behintzat, ez du halakorik lortu.

Arrazoi hori dela medio, Udalari zuzendu zitzaion, 2006ko maiatzaren 29ko idazkiaren bidez, eta, bertan, sortutako arazolari irtenbidea aurkitzeko eskatu zion, bazkaleku horiek erabiltzeko eskubidea zuela uste baitzuen. Oraindik, ordea, ez du erantzunik izan.

2. Erreklamazioa jaso ondoren, Arartekoak, 2006ko abenduaren 15eko idazkiaren bidez, informazioa eskatu zion Gordexolako Udalari kexa-idazkian adierazitako kontuen inguruan eta, bereziki, aprobetxamendu publikoak esleitzeko prozeduraren, formalizatutako kontratuaren eta ondasun horiek arautzen dituen gainerako arautegiaren inguruan.

Udalak erantzuna bidali zigun eta, bertan, bazkaleku horien erabilerari buruzko aurrekariak azaldu zituen. Zioenez, 1991n abeltzainei zuzendutako deialdia egin zuen, nahi izanez gero, bazkalekua behi-haziendarako erabili ahal izateko hesitzen parte har zezaten; beharrezko materialak Udalak berak jarriko zituen.



Lau abeltzaini bakarrik interesatu zitzairen eta, hala, beharrezko lanak egin eta bazkalekua erabiltzen hasi ziren. Ondoren, kontratu batean bildu ziren bazkalekuaren aprobetxamendua zehazten zuten klausulak.

Bestalde, Udalak jakinarazi zigun, hainbatetan, pertsona horrek bazkalekua zaldi-haziendarako erabiltzeko eskatu zuela, baita abeltzainen elkarteko kide izateko ere, baina kideetako batek berak ere ez zuela bere nahiaren alde egin. Horri dagokionez, kexagilearen eta bazkaleku publikoa erabiltzen ari zen elkartearen artean sortutako gorabehera eta gatazka jakin batzuen berri eman zuten, *“sortutako egoera ulertzerakoan izan zezakeen garrantziagatik”*.

Hala ere, Udalak ez zuen inolako dokumentaziorik ekarri formalizatutako kontratuari eta bazkalekuaren erabilera esleitzeko aplikatutako prozedurari buruz eta, beraz, ezin izan zen kexaren edukia baloratu, erakunde honek eskatu zuen moduan.

3. Eskatutako dokumentazioa bidaltzeko hainbat gestio egin eta horiek emaitzarik ez zutela ikusita, 2007ko ekainaren 4ko idazkiaren bidez, bazkalekuak aipatutako abeltzainen elkarteari esleitu izanaren inguruko dokumentazio guztiak bidaltzeko eskatu genien berriz ere.

Azkenik, 2007ko abenduaren 12an, errekerimendua eta beste zenbait gestio egin ondoren, Udalarena den Garate izeneko herri onurako mendiko aprobetxamendua emateko Baldintzen Agiria bidali ziguten, baita *“Asociación Nocerillo de Ganaderos de Gordexola”* elkarteari 15,8 ha-ko azalera soil-soilik abeltzaintzarako erabiltzeko baimena ematen zion erabakia ere, 2007ko urtarrilaren 25ekoa, Osoko Bilkurarena.

Dokumentazio horrekin batera, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritzako foru diputatuaren 2007ko martxoaren 29ko Foru Agindua bidali ziguten (horren bidez, aurreko paragrafoan adierazitako baimena eman zen).

Horiek horrela, honako gogoeta hauek helarazi nahi dizkizugu.

### Gogoetak

1. Lehenik eta behin, esan behar dugu zailtasunak izan ditugula kexa aurkeztu zuen pertsonak aipatutako kontuak baloratu ahal izateko gutxieneko dokumentazioa lortzeko.



Izan ere, ez dugu Udalak lehenengo erantzunean aipatzen duen kontratua jaso. Ez dakizkigu, beraz, horren data, iraupena eta gainerako inguruabarrak; 1991 baino beranduago formalizatu zela baino ez dakigu, alkateak erantzunean dioenaren arabera.

Nolanahi ere, egokia iruditu zaigu bidezko gogoetak egitea, une honetan bai baitago udal bazkalekuak erabiltzeko erabaki formalizaturik, aurrekarietan adierazi dugun moduan. Gogoan izan behar dugu erabaki horiek kexagileak egindako eskaeraren ondoren hartu zirela. Eskaera hori bazkalekuak erabiltzeko eskaeraren inguruan erantzunik jaso ez zuelako aurkeztu zuen, bere ustez, bazkalekuak erabiltzeko eskubidea baitzuen, ondasun publikoak ziren heinean.

Aipatu udal jarduerak ere erakunde honek bidalitako idazkiaren ondoren gauzatu dira. Idazki horren bidez, informazioa eskatu zen bazkaleku publikoaren erabilera esleitzeko bideratu zen prozeduraren inguruan, administrazio publikoek toki erakundeen ondasunei dagokienez egiten duten kontratazioa erregulatzen duen arautegiarekin bat etorriz.

2. Aurreko atalean aipatutako testuinguruan, Garate izeneko herri onurako mendiko aprobetxamendua emateko Baldintzen Agiria onartzen duen Osoko Bilkuraren 2007ko urtarrilaren 25eko erabakia aztertuko dugu. Osoko Bilkuraren erabakiak ez du emakidari eta/edo bideratutako prozedurari buruzko beste inolako gogoeta edo zehaztapenik egiten.

Bizkaiko Foru Aldundiak prestatzen duen herri onurako mendietako emakidetakako baldintza orokor eta berezien agirian, bazkalekua abeltzaintzarako erabiltzeko aprobetxamendua zer baldintzatan egin daitekeen zehazten da. Agiriak zuzenean jasotzen du, aurrekarietan esan bezala, elkarteari egin zaiola esleipena eta, baldintzen artean, ez du esaten esleipena egiteko, aurrez, lehiaketa publikoko prozedurarik bideratu behar denik.

Bestela esanda, agiri horri Baldintzen Agiria deitu zaion arren, bertan jasotakoak ez dira Herri Administrazioen Kontratuen Legearen (HAKL) 48. eta 49. artikuluetan aipatzen diren administrazio baldintza orokorrak eta bereziak, ez baitituzte legezko gutxieneko manuak biltzen, bereziki, esleipen prozedurari dagozkionak.



Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak prestatu eta Udalak onartu duen Baldintzen Agiria Mendien Araudian –otsailaren 22ko 485/1962 Dekretua– jasotako aurreikuspenekin bat dator. Araudiari jarraiki, basoaren arloaz arduratzen den agintaritzak<sup>1</sup> baldintza fakultatiboan agiriak prestatuko ditu eta Udalak, mendiaren jabea den heinean, baldintza ekonomikoen agiriak egingo ditu, ondarearen administrazioari eta kontratazioari buruzko toki araubidearen legeriak ezartzen duenaren arabera (213. artikulua).

Ildo beretik, mendiei eta babespeko naturguneen administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauaren 94. artikuluekin bat, Nekazaritza Sailak baso aprobetxamendua arautuko duten baldintza tekniko eta fakultatiboak emango digu, baita oinarrizko prezioa ere; baldintza horiek derrigor bete behar izango dituzte mendien titularrek. Ez dago horrelako aurreikuspenik 68.etik 70.era bitarteko artikuluetan aipatzen den foru arauak erregulatutako bazka-aprobetxamenduetarako, nahiz eta bazka-aprobetxamenduetarako ere baldintza tekniko eta fakultatiboak ezarri behar direla ulertu behar dugun, herri onurako mendietan artzaintza arautzeko betebeharrarekin bat etorriz.

Hortaz, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari dagokio bazka-aprobetxamenduak, onesten den antolamendu planaren, plan teknikoaren edo aprobetxamendu eta hobekuntzako urteko planaren esparruan, mendia kontserbatu eta hobetzeko irizpideekin bat etorriz egiten direla arautzea eta kontrolatzea. Hori gorabehera, Udala, mendiaren titular gisa, baldintzen agiriak legeria aplikagarriarekin bat etorriz idatzi eta izapidetzera behartuta dago.

Gure ustez, horregatik egiten da, Nekazaritzako diputatuaren foru aginduaren bidez, erreferentziazko bazkalekua abeltzaintzarako erabili ahal izateko baimenaren izapidea; nolana ere, jarduera horrek ez du mendiaren titularra bidezko betebeharrak betetzetik salbuesten. Kasu honetan, titularra Udala da eta, beraz, ondarearen arloari dagokion legeria aplikatuko zaio.

3. Herri onurako gisa katalogatutako mendiak jabari publikoko ondasunak dira, mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legeak (ML) 12. artikuluan dakarrenarekin bat etorriz, eta horietan aprobetxamendua egiteko, beharrezkoa da emakida demaniala egitea (14. artikulua). Jabari publikoko ondasunen

---

<sup>1</sup> Kasu honetan, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak.



emakidak elkarren lehian jarrita egingo dira (Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 93. artikulua)<sup>2</sup>.

Ildo beretik, Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiaren arabera (OA) – 1372/1986 ED, ekainaren 13koa–, jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa administrazio emakidaren pean egongo da. Emakidak lizitazioaren ondoren egingo dira, hurrengo artikuluekin eta Toki Korporazioetako kontratazioa erregulatzen duen arautegiarekin bat etorritik (OAren 78. artikulua).

Prozedurari jarraiki, behin proiektua eta/edo baldintzen agiria onetsita, nahitaezko gutxienerako edukiarekin, derrigorrezko lizitazioa egingo da eta horren oinarriak jendaurrean jarriko dira, hogeita hamar egunez, ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten (OAren 87. artikulua). Horrela, besteak beste, baldintzen agiriak, Nekazaritza Sailak aurreikusitako klausulez gain (arestian aipatu dugun mendien arautegiarekin bat etorritik), interesdunek bete beharreko baldintzak eta esleipenerako erabili beharreko irizpideak barneratuko ditu, bazkalekuak onartzen duen abere zama baino eskaera gehiago dauden kasuetan).

Horri dagokionez, 3/1994 Foru Arauaren 70. artikulua zenbait irizpide finkatzen ditu gehiegizko abere zama dagoenean aprobetxamenduen esleipena lehenesteko.

4. Laburbilduz, ekarritako informaziotik eta dokumentaziotik ondoriozta dezakegunez, Udalak ez ditu bete bere titulartasuneko bazkalekuak ematerakoan derrigorrezkoak diren formalitateak, funtsean, eskaerak elkarren lehian jartzeari dagozkionak. OAren 81. artikuluekin bat etorritik, baliogabeak izango dira aurreko ataletan aipatu ditugun derrigorrezko formalitateak betetzen ez dituzten emakidak.

Ondorioz, bidezkoa da Osoko Bilkurak hartu zuen esleipen erabakia berrikustea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 102. artikulua eta hurrengoek ezartzen dutenaren arabera.

---

<sup>2</sup> Oinarritzko legeria, Legearen azken xedapenetako bigarrenaren arabera.



Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, honako gomendio hau egiten da:

**2/2008 GOMENDIOA, urtarrilaren 23koa, Gordexolako Udalari egina.**

Legez aurreikusitako prozedurarekin bat etorritz, Osoko Bilkurak 2007ko urtarrilaren 25ean hartutako erabakia berrikus dezala (horren bidez, 88. zk.ko herri onurako mendiko 15,8 ha-ko azalera abeltzaintzarako erabiltzeko ematea baimendu zen).

Hala bada, udal titulartasuneko jabari publikoko ondasun horren erabilera pribatiboaren emakidarako lehiaketa publikoko espedientea izapidetu dezala.